

LAB SINDIKATUAK GIPUZKOAKO METALEKO HITZARMENEA BERE PARTE HARTZEA ETEN DU

Gaur, Martxoak 9an, LAB sindikatuak metaleko hitzarmenaren negoziazio mahaiaren, bere parte hartzea etetea erabaki du. Honek ez du esan nahi negoziazio prozesua bertan behera uzten dugunik. Erabaki hau hartzeko arrazoi honako hauek dira:

1. Aurreko bileretan adierazi dugun bezala, ADEGIk aurkeztu duen plataforma onartezina da, orain arte izan dugun metaleko hitzarmena goitik behera aldatu eta ezerezean utzi nahi baitu.
2. Negoziazio mahaiaren osatzen dugun sindikatu guztiok ADEGIri bere plataforma atzerakoia erretiratu dezala eskatu diogu eta negoziazioak aurrera jarrai dezan, gaur egungo hitzarmena abiapuntu izatea galdatu diogu.
3. Ikusirik, ADEGIk negoziazio prozesua bere plataformatik abiatuta bideratu nahi duela, momentuz, LABek ez du ikusten akordiorako aukerarik. Akordiorik egotekotan gaur egungo hitzarmena abiapuntutzat hartuta izan beharko du.
4. Gure aburuz, negoziazio mahaiaren jarraitzea, langileen interesei iruzur egitea eta ADEGIk aurkezturiko plataforma atzerakoia zilegitasuna ematea da. Gogoratu behar dugu ADEGIk, Gipuzkoako metaleko langileek urtetako borrokaren poderioz lorturiko hainbat eskubide suntsitu nahi dituela langileen kalterako.
5. Ez dugu ulertzen gainontzeko sindikatuen jarrera; ADEGIri bere plataforma erretiratzea eskatu eta aldi berean bere edukiak eztabaidatzen eta negoziatzen jarraitzea kontraesan bat dela deritzogu.

Hau guztia ikusirik, gainontzeko sindikatuei, negoziazio mahaiak suposatzen duen antzerkia bertan behera uzteko gonbita luzatzen diegu eta haatik, ADEGIren jarrera inposatzaileari aurre egiteko mobilizazio egutegi adostu eta bateratua proposatzen dugu.

Bukatzeko, herrialdeko hitzarmenaren aldeko hautuan berresten gara eta metaleko langile guztiei burutuko ditugun mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen diegu.

**GIPUZKOAKO HITZARMENAREN DEFENTSAN
INPOSAKETARIK EZ!**

EL SINDICATO LAB DEJA EN SUSPENSO SU PARTICIPACION EN EL CONVENIO PROVINCIAL DEL METAL DE GIPUZKOA

Hoy, 9 de marzo, el sindicato LAB ha decidido suspender su participación en la mesa negociadora del metal. Esto no significa que renunciemos al proceso de negociación. Son éstas las razones que han motivado nuestra decisión:

1. Como hemos manifestado en anteriores reuniones, la plataforma que ha presentado ADEGI es inaceptable, pues pretende vaciar y cambiar de arriba abajo el Convenio que hemos tenido hasta ahora.
2. Todos los sindicatos que formamos la mesa negociadora le hemos pedido a ADEGI que retire su plataforma regresiva y que se tome como punto de partida el Convenio actual para que la negociación avance.
- 3.- Visto que ADEGI quiere imponer su plataforma como punto de partida para la negociación, hoy por hoy LAB no ve ninguna posibilidad de acuerdo. Para que pueda haber acuerdo tiene que tomarse como punto de salida el Convenio actual.
4. En nuestra opinión, el seguir en la mesa negociadora, supone un fraude a los trabajadores/as y supone dar legitimidad a la propuesta regresiva presentada por ADEGI. Tenemos que recordar que ADEGI, pretende destruir una serie de derechos que han sido conquistados como consecuencia de la lucha de años de los trabajadores y trabajadoras del metal de Gipuzkoa.
5. No entendemos la actitud del resto de sindicatos, ya que nos parece un contrasentido el pedir a ADEGI que retire su plataforma y, al mismo tiempo, seguir negociando y discutiendo sus contenidos.

Por todo ello, queremos invitar al resto de sindicatos para que abandonen ese teatro que supone la mesa negociadora y, consiguientemente, proponemos consensuar un calendario movilizador para hacer frente unitariamente a la actitud prepotente de ADEGI.

Para terminar, nos ratificamos en nuestro compromiso a favor del convenio provincial y hacemos un llamamiento a todos los trabajadores y trabajadoras del metal para que tomen parte en las diferentes movilizaciones que se celebren.

Donostia, 2010eko Martxoak 10

